RUEDA DE PRENSA

# IX ACTO DE SOLIDARIDAD CON LAS VÍCTIMAS
## *RECOGE SU TESTIGO*
Bilbao, 14 de Diciembre de 2008

La Coordinadora Gesto por la Paz de Euskal Herria va a realizar por noveno año consecutivo un acto de solidaridad con las víctimas del terrorismo. Este acto se encuadra dentro del trabajo prioritario que hemos fijado actualmente, que es la deslegitimación de la violencia, en la que la solidaridad con las víctimas es una de las claves más importantes y en el convencimiento de que es imprescindible continuar mostrando públicamente el reconocimiento y memoria hacia las víctimas.

Desde el carácter de movimiento ciudadano de Gesto por la Paz queremos fomentar la sensibilidad de la ciudadanía hacia la realidad de las víctimas. Vivimos en una sociedad en la que el sufrimiento, el dolor, la pérdida, la vulnerabilidad, son palabras que molestan, sentimientos que se ocultan hasta que nos llegan situaciones especiales que nos obligan a detenernos y a ser conscientes de lo importante que es cuidar nuestra vertiente humana.

La situación de las víctimas del terrorismo es especialmente dura, en cuanto a que la realidad les obliga periódicamente a enfrentarse nuevamente con la violencia: nuevos atentados, otras agresiones, pintadas amenazantes, e incluso noticias más positivas como detenciones o juicios. Este tipo de noticias les remueve sus sentimientos de pérdida y, en ocasiones, sentimientos de humillación ante el hecho de que se pretenda justificar y aplaudir el daño que les están causando.

Y nuestra implicación ante su situación debe ser especial porque las víctimas son la parte de la sociedad que ha sufrido y está sufriendo directamente el ataque que el terrorismo quiere dirigir a todos nosotros. El terrorismo no escoge a una persona concreta por su calidad humana, sino por lo que representa en nuestra comunidad o por el daño que su amedrentamiento o su asesinato pudiera causar en la propia sociedad. Nuestro compromiso con las víctimas del terrorismo debe ser firme, porque, insistimos, el ataque que ellas han recibido se dirige contra toda la sociedad, contra todos nosotros y contra los valores en los que se basa nuestra convivencia.

Gesto por la Paz ha asumido el compromiso de alimentar la sensibilidad de la sociedad ante las víctimas de la violencia organizando actos y jornadas que nos permitan reconocer su situación, recordar las terribles consecuencias que la pervivencia de la amenaza terrorista tiene en nuestra sociedad, y renovar nuestro compromiso con la deslegitimación activa de la violencia y con la apuesta por una sociedad plural en la que todos y todas podamos convivir pacífica y libremente.

La realización de actos de reconocimiento supone, además, crear noticias positivas de solidaridad y compromiso de la sociedad con ellas, que puedan intervenir favorablemente en los procesos cíclicos en que se ven envueltas las víctimas al revivir los sentimientos que acompañan a su victimización.

Nos congratulamos de que, desde los primeros años en que comenzamos a realizar este acto, se han incrementado de forma importante las iniciativas de reconocimiento a las víctimas. Cada vez se realizan más actos de solidaridad organizados por instituciones, fundaciones o por colectivos de víctimas. Nos parece importante que el cambio que ha ido viviendo la sociedad, desde la pasividad inicial hacia la cercanía y el compromiso, se haga visible en nuestra realidad, en las calles de nuestros pueblos y ciudades, en los medios de comunicación y desde nuestras instituciones. Estamos creando reconocimiento, solidaridad y memoria. Memora viva para

procurar un futuro más digno para nuestra sociedad. Pero esto debe permanecer, debe continuar. No se trata solo de hacer actos y convertirlos en monumentos de piedra que nos ofrezcan una memoria de nuestro pasado compartido. Se trata de construir una memoria compartida para nuestro futuro. Se trata de crear un sustrato común de valores éticos, sociales y políticos que nos permita mantener nuestra dignidad frente a la barbarie.

## RECOGE SU TESTIGO

Como hemos dicho, la ciudadanía cada vez con más firmeza asume lo que significa que en nuestra sociedad se sigan produciendo víctimas del terrorismo, víctimas fruto del intento de imposición de un grupo minoritario de vascos al conjunto de la sociedad de unos planteamientos políticos e ideológicos ante los que no nos doblegamos.

Las víctimas precisamente ponen en evidencia la intolerancia, la intransigencia, la doble moral, la crueldad... de los asesinos. Ellas, su testimonio, son el máximo exponente deslegitimador del terrorismo.

El lema que hemos utilizado para el acto de este año es una interpelación a cada ciudadano/a: *Recoge su testigo*, el testigo de las víctimas de la violencia. E invitamos a toda la ciudadanía a recoger el testigo de las víctimas porque creemos que es la mejor manera de comprometernos con ellas, con lo que significan, y con la propia sociedad en la defensa de aquellos valores en los que sustentamos nuestra convivencia y que ETA pretende destruir.

Recoger el testigo de cada víctima es comprometernos con la defensa de la vida, de la dignidad del ser humano, del respeto al que piensa diferente, del pluralismo de nuestra sociedad, de la libertad, de la justicia, de una convivencia tolerante y democrática, de la propia democracia, del Estado de Derecho, de la igualdad entre todos, en definitiva, de todos aquellos valores que quienes empuñaron el arma o colocaron la bomba contra otro ser humano pretendían destruir.

Mediante la participación en este tipo de actos nos queremos vacunar contra el olvido y la indiferencia hacia las víctimas de un terrorismo, nos queremos llenar de responsabilidad y actuar en consecuencia ante un disparo mortal dirigido contra todos nosotros y que, además, se pretende justificar en nuestro nombre; y nos comprometemos a desarrollar un ejercicio activo de deslegitimación de la violencia y a defender los valores del respeto tolerancia y libertad que nos permitirán disfrutar de la riqueza que nos aporta la pluralidad de nuestra sociedad.

Por todo esto, convocamos a la ciudadanía a participar en el IX Acto de Solidaridad con las Víctimas del terrorismo que celebraremos <u>el domingo, 14 de Diciembre, a las 13 horas, en el Parque de la Doña Casilda de Bilbao (frente a la calle Gregorio de la Revilla).</u>

COORDINADORA GESTO POR LA PAZ DE EUSKAL HERRIA

11 de diciembre de 2008

PRENTSAURREKOA

BIKTIMEKIKO ELKARTASUNERAKO IX. EKITALDIA
*JASO EUREN LEKUKOA*
Bilbao, 2008.eko abenduaren 14a

Euskal Herriko Bakearen aldeko Koordinakundeak terrorismoaren biktimen aldeko elkartasunezko ekitaldia egingo du bederatzigarren urtez. Ekitaldi hau gaur egun gure lehentasun bihurtu dugun eginkizunaren barruan koka dezakegu: indarkeriari zilegitasuna kendu. Eta egiteko horretan biktimei elkartasuna adieraztea ezinbestekoa da, gure ustez nahitaezkoa delako biktimei publikoki aitorpena eta memoria erakustea.

Bakearen aldeko Koordinakundeak, herritarren mugimendua denez, biktimekiko herritarren sentiberatasuna sustatu nahi du. Gure gizartean, sufrimendua, samina, galera, ahuldadea... bezalako hitzek traba egiten dute; sentimenduok ezkutatu egiten dira, gelditzera eta giza alderdia zaintzearen garrantziaz jabetzera garamatzaten aparteko egoerak azaltzen zaizkigun arte.

Terrorismoaren biktimen egoera guztiz gogorra da, errealitateak, aldizka, indarkeriari aurre egitera daramatzalako berriz ere: atentatu berriak, beste eraso batzuk, pintada mehatxugileak, eta baita atxiloketak edo epaiketak bezalako berri positiboagoak ere. Honelako berriek sentimendu nahasiak dakarzkie: galerak datozkie berriro burura eta, batzuetan, burua makurrarazten dizkiete berriz ere, eragiten zaien kaltea justifikatzeko eta txalotzeko saiakerak egoten direlako.

Eta beren egoeraren aurrean, gure konpromisoak apartekoa izan behar du, biktimak, terrorismoak gu guztioi zuzendu nahi digun erasoa zuzenean jasan duen eta jasaten diharduen gizartearen zatia direlako. Terrorismoak ez du gizon edo emakume jakin bat bere giza kalitateagatik aukeratzen, gure elkartean duen ordezkapenagatik edo bera kikiltzeak edo hiltzeak gizartean eragin dezakeen kalteagatik baizik. Terrorismoaren biktimekiko konpromisoak sendoa izan behar du, berriro diogu, beraiek jasan duten erasoa gizarte osoaren, gu guztion eta gure bizikidetasunaren oinarri diren balio guztien aurkakoa delako.

Bekearen aldeko Koordinakundeak bere gain hartu du biktimen aurrean gizartearen sentiberatasuna sustatzeko konpromisoa, beren egoera ezagutzen, gure gizartean mehatxu terroristaren iraupenak dituen ondorio izugarriak gogoratzen eta indarkeriari zilegitasuna kentzeko eta denok bakez eta askatasunez bizitzeko aukera izango dugun gizarte anitza eraikitzeko konpromiso aktiboa berritzen laguntzen diguten ekitaldi eta jardunaldiak antolatuz.

Biktimen aitorpenaren aldeko ekitaldiak antolatuz, gainera, elkartasunezko eta konpromisozko berri positiboak sortzen ditugu beraientzat eta hauek eragin positiboa izan dezakete, beren 'biktimizazioarekin' batera etortzen diren sentimenduak berriro bizitzean, biktimek izaten dituzten prozesu ziklikoetan.

Ekitaldi hau egiten hasi ginenetik, asko gehitu dira biktimen alde egiten diren ekimenak eta horrek pozez betetzen gaitu. Biktimen aldeko gero eta elkartasunezko ekitaldi gehiago antolatzen da erakundeen, fundazioen edo biktimen kolektiboen eskutik. Garrantzitsua deritzagu gizarteak izan duen aldaketa, hasierako pasibotasunetik biktimekiko hurkotasun

eta konpromisora, gure errealitatean, gure herri eta hirietako kaleetan, komunikabideetan eta gure erakundeek bultzatuta agertzera emateari. Aitorpena, elkartasuna eta oroipena sortzen dihardugu. Oroipen bizia, gure gizartearentzako etorkizun duinagoa ahalbideratzeko. Baina honek iraun egin behar du, jarraitu egin behar du. Kontua ez da ekitaldiak burutzea eta gure iragan konpartituaren oroipena eskainiko diguten harrizko monumentu bihurtzea. Gure geroa eraikitzeko oroipen konpartitua eratu behar dugu. Basakeriaren aurrean geure duintasunari eusten lagunduko diguten balio etiko, sozial eta politikoen oinarri bateratua sortzea da helburua.

## JASO EUREN LEKUKOA

Esan dugunez, herritarrek gero eta argiago ikusten dute gure gizartean egunez egun biktima berriak, Euskal Herriko gutxiengo batzuek onartzera behartu nahi gaituzten planteamendu politiko eta ideologiko batzuk ez onartzeagatik sortzen diren biktimak egoteak zer esan nahi duen.

Biktimek, hain zuzen ere, hiltzaileen intolerantzia, amorerik ez ematea, moral bikoitza, basakeria... nabarmen uzten dituzte. Biktimak, beren testigantza, dira terrorismoari zilegitasuna kentzeko adierazgarririk onena.

Aurtengo ekitaldirako aukeratu dugun goiburua interpelazioa da gutariko bakoitzarentzat: *jaso euren lekukoa,* indarkeriaren biktimen lekukoa. Eta dei egiten diegu herritar guztiei biktimen lekukoa har dezaten, gure bizikidetasunaren oinarri diren eta ETAk suntsitu nahi dituen balioen defentsan, horixe delako beraiekin, beraiek adierazten duten guztiarekin, eta gizartearekin berarekin konprometitzeko biderik onena.

Biktima bakoitzaren lekukoa jasotzea, biziaren, gizakiaren duintasunaren, desberdina pentsatzen duenarekiko errespetuaren, gure gizartearen aniztasunaren, askatasunaren, bizikidetasun jasanbera eta demokratikoaren, demokraziaren beraren, Zuzenbidezko Estatuaren, guztion arteko berdintasunaren, azken batean, beste gizon edo emakume batzuen aurka armak edo bonbak erabiliz suntsitu nahi izan dituzten balio guzti haien defentsa da.

Honelako ekitaldietan parte hartuz 'txertoa' hartu nahi dugu, biktimak ez ahazteko, biktimekin axolagabekeriaz ez jokatzeko; ardura geure gain hartu nahi dugu eta gu guztioi zuzendutako eta geure izenean justifikatutako tiro hilgarriaren aurka egin nahi dugu; eta indarkeriari zilegitasuna kentzeko ahaleginean eta gure gizartearen aniztasunak dakarkigun aberastasunaz gozatzen lagunduko diguten errespetu, tolerantzia eta askatasuna bezalako balioen defentsan konprometitzen gara.

Guzti horregatik, herritarrei dei egiten diegu Biktimen aldeko Elkartasunerako IX. Ekitaldian parte har dezaten. Abenduaren 14an, igandez, ospatuko dugu 13:00an, Bilboko 'Doña Casilda' parkean (Gregorio de la Revilla kalearen parean).

EUSKAL HERRIKO BAKEAREN ALDEKO KOORDINAKUNDEA
11 de diciembre de 2008

Apdo. 10.152 - 48080 Bilbao – Tfno 94 4163929 - Fax 94 4153285
e-mail: gesto@gesto.org http://www.gesto.org